

o

ALTXOR BATEN BILA

Baziren behin bi piraten talde bat neskena eta bestea mutilena. Ez ziren ondo eramaten eta biak altxor baten bila zebiltzan. Nesken bandera urdina zen eta mutilena larrosa.

Mutilen kapitania Erik deitzen zen eta nesken kapitania aldiz, Enea, eta esnea gustatzen zitzaion. Eriki, Enea gustatzen zitzaion oso indartsua zelako. Enearen txarrena oso agintsua zela zen, beste aldetik, oso lodia eta majoa zen Erik.

Bakoitzak loro bat zuen. Enearena Kuki deitzen zen Erikena, Esmeralda.

Konturatu ziren altxor berdinen bila zijoazela biak, eta gero eta azkarrago joan ziren bila. Zein baino zein lehenago iritsiko.

Bide guztia egin ondoren sumendira heldu ziren. Sumendi aurrean egotean konturatu

ziren dragoi handi bat zegoela itxaroten Enearen taldeari eta Erikenari.

Hasi ziren talde lanean dragoiaren kontra, dragoiak sua botatzen zuen ahotik, azkenean dragoia hil egin zuten katapultekin eta altxorra hartu zuten.

Ondoren altxorra elkarbanatu zuten eta talde handi bat osatu zuten denen artean. Handik gutxira Miamira bizitzera joan ziren.

Azkenik Enea eta Erik ezkondu egin ziren Miamiko hondartza batean eta hortik urte batzuetara bi ume eduki zituzten eta familia bat osatu zuten.

HALA BAZAN EDO EZ BAZAN SAR
DADILA MIAMIKO HONDARTZAN.